

## **Bizkaiko Batzar Nagusiek herritarren laguntzea eskatu dabe, Gernikako Arbolaren kimuen errolda egiteko**

- **2018an Bizkaiko Batzar Nagusietako Presidentziak martxan jarri eban ekimenaren helburua, munduan zehar banatuta dagozan Gernikako Arbolaren ondorengo haretxen inguruko informazioa jasotea da**
- **Gaur egun dakigunez, 151 kimu bizirik dagoz, horreetatik 87 Bizkaiko Lurralde Historikoan**
- **Lokalizau dan kimu zaharrena 1859an landatu zan, Nabor izenez ezagutzen dan etxearen lorategian, Gernikan bertan**

2018ko urte honetan, Bizkaiko Batzar Nagusiek, munduan zehar sakabanatuta dagozan Gernikako Arbolaren kimu guztiak jasoko dituan errolda egiteko prozesua jarri dabe martxan. Behar handia eskatzen dauen prozesu horretan hainbat erakunderen lankidetzara jaso da, Euskadiko udalena, EUDELEN bitartez, eta euskal kolektibidadeena, Kanpoko Euskal Komunitaderako Zuzendaritzaren bitartez.

Azterlana osatzeko xedez, Bizkaiko Batzar Nagusietako Presidentziazatik ilusinoz betetako proiektuaren xehetasunak herritarrei jakinarazotea erabagi da, Gernikako Arbolaren ondorengoak diran haretxen ganeko edozein informazio eskatzeko. Mundu osoko personak, Bizkaiko Lurralde Historikoaren historiaren parte garrantzitsuen parte bilakatzeko modua da.

Holan, kimu horreetakoren bat existiduten dala edo existidu dala (orain edo lehen) dakien edozein personak bere laguntzea emon leike, mezu elektronikoa bialduz helbide honetara: [gernikako.arbola.munduan@bizkaia.eus](mailto:gernikako.arbola.munduan@bizkaia.eus)

Orain arte aurrera eroan dan ikerketa lana, Bizkaiko Foru Artxibategi Historikoan dagozan funtsetako erregistroen eta espedienteen azterketan zentrau da, eta baita Bizkaiko Batzar Nagusietan dagozan kimuen urteeren erregistroen kontsultan be. Informazio hori guztia Udaletatik eta euskal kolektibidadeetatik bialdutakoagaz batera antolatu da. Horrez gain, Gernikako Batzarretxearen ganeko hainbat datu batzen 40 urte baino gehiago emon dituan Joseba Iribar ikerlariaren laguntza garrantzitsua izan dogu.

Oinarri horretan abiauta, kimuak identifikatu eta non dagozan jakin ahal izan da. Posible izan dan kasuetan, gaur egun zein egoeratan dagozan egiaztatu ahal izan da, erregistro grafikoaren bitartez.

Une honetan, azterlanak 400 kimu ingururi buruzko informazioa dauka, eta 2018an, horreetatik 151 bizirik dagozala egiaztatu ahal izan da. Beste alde batetik, beste 36 kimuri jagokenez, gaur egun bizirik egon daitezkezala pentsetara erooten daben oinarri sendoak dagoz, oraindino segurtasun osoz esatea ezinezkoa dan arren. Azkenik, 60 zugatz desagertu edo hil egin dirala egiaztatu ahal izan da.

Kimu batzuk bizirik ez irautearen errazoi gehienak zergaiti naturalak –izaki bizidunak diralako– edo ingurumenagaz lotutakoak dira. Halanda be, historian zehar, ale batzuk izaera politikoa daukien erasoen ondorioz desagertu dira. Holan gertatu zan Lizarran landatutako kimuakaz edo Luiaondoko Hartziko Kurutzearen ondoan landatu zanagaz.

#### “EMAN TA ZABAL ZAZU MUNDUAN FRUTUA”

Jose Maria Iparragirre bardo handiak *Gernikako Arbola* ereserki ezagunean “Eman ta zabal zazu munduan frutua” kantau ebanetik, Bizkaiko Batzar Nagusiek ahalegina egin dabe mundu osoko azkenengo txokoetan be Gernikako Arbola historikoaren ondorengo bat egon daiten. Azterlana bat dator, hain zuzen be, Iparragirre bardoa Urretxun jai zonetik laster ospatuko dan 200. urteurrenaren ospakizunagaz.

Banaketa geografikoari jagokonez, aurkitu ahal izan diran kimuen erdia baino gehiago Bizkaiko Lurralde Historikoan dago (87). Halanda be, azterlanak egiaztatu ahal izan dau kimuak dagozala Hegoaldeko lau lurraldeetan eta Iparraldean.

Modu berean, Estatu barruan egiaztatu ahal izan da haretx zaharraren ondorengoek euren sustraiak zabaltzea eta bizirik irautea lortu izan dabela hainbat autonomia erkidegotan, Galizian eta Katalunian, besteak beste.

Maila orokorragoan, gaur egun bost kontinenteetan kimuak bizirik ete dagozan egiaztatu ezin izan dan arren, iraganean aleak bost kontinenteetara bialdu ziran. Holan egin zan 1902an Jerusalemara egin zan euskal erromesaldian Judean landatu zan haretxaren kasuan, edo 2006an Nairobin (Kenia) edo 1996an Sydneyko Lorategi Botanikoan landatu ziranakaz. Leku horreetako guztietako hainbat erakundegaz jarri gara hartu-emonetan, baina orain arte ezin izan dogu egiaztatu gaur egun bizirik irauten daben ala ez.

Europan hainbat lekutan kontserbetan dira Gernikako arbolaren kimuak, parke botaniko baten sarreran leku garrantzitsua beteten dauen Hampshiren (Ingalaterra), Gernikagaz anaituta dagon Alemaniako Pforzheimen edo Frantziako Gurs edo Poloniako Auschwitz kontzentrazino eremu izandakoetan, besteak beste.

Ameriketean, euskal kolektibidadeen presentzia indartsua daukien Argentinan, Txilen, Uruguain edo Estatu Batuetan, pasino handiz zaintzen ditue kimuak. Urietako plaza nagusietan edo euskal etxeetan dagoz, eta euren gerizpean ospakizunak, ekitaldiak eta omenaldiak egiten dira.

#### KIMU ZAHARRENA

Azterlan horretatik ateratako hainbat datu eta data aztertu eta gero, egiaztatu ahal izan da orain arte aurkitu dan kimu zaharrena Gernikan dagoa, hain zuzen be. Kimua 1859an landatu zan, Batzarretxetik 200 metrora, Nabor izenez ezagutzen dan etxearen lorategian.

Gure lurraldetik kanpo, aspaldiko erreferentzia batzuek 1602ko Argentinako edo 1724ko Montevideoko kimuez berba egiten deuskuen arren, gaur egun bizirik dirauen kimu zaharrena 1886koa da, eta Argentinako Rosario de Santa Fén dago.

Gernikako haretxaren ehun urte baino gehiagoko beste ondorengo batzuk aurkitu doguz Kataluniako Arenys de Munten (1882), Buenos Aireseko Laurak Bat Euskal Etxean (1906), Zallako Zariketeko San Pedro baseleizan (1912) edo Oñatiko plazan (1917).

## AZTERLANAREN ARDUREA DAUEN TALDEA

Iker Lope de Bergara biologoa eta informazio geografiko sistemen garapenean teknikari espezialista da ondare naturalaren eta kulturalaren arloan. Azterlana Rebeca López historiagile eta dokumentalisteagaz batera ari da egiten. Biak be, Bilbon dagon Orbela Kultura eta Natura kontsultoretza enpresako teknikariak dira.

NOTA DE PRENSA

17/12/18

## **Las Juntas Generales de Bizkaia solicitan a la ciudadanía su colaboración para la elaboración de un censo de retoños del Árbol de Gernika**

- **Esta iniciativa puesta en marcha en 2018 por la Presidencia de las Juntas Generales de Bizkaia busca recabar información relativa a los robles descendientes del Árbol de Gernika repartidos por el mundo**
- **Actualmente se tiene constancia de la supervivencia de 151 retoños, de los cuales, 87 se encuentran en el Territorio Histórico de Bizkaia**
- **El retoño más antiguo localizado fue plantado en 1859, en el jardín de la casa conocida como Nabor**

Este año 2018, las Juntas Generales de Bizkaia han puesto en marcha la elaboración de un censo que recoja todos los retoños del Árbol de Gernika distribuidos por el mundo. Un laborioso proceso en el que se está contando con la colaboración de diferentes instituciones, con un papel protagonista por parte de los ayuntamientos de Euskadi, a través de EUDEL, y de las colectividades vascas, a través de la Dirección para la Comunidad Vasca en el Exterior.

A fin de completar este estudio, desde la Presidencia de las Juntas Generales de Bizkaia se ha decidido poner en conocimiento de la ciudadanía los pormenores de este ilusionante proyecto, para solicitar cualquier tipo de información relativa a los robles descendientes del Árbol de Gernika. Una manera de hacer partícipe a personas de todo el mundo de una parte importante de la historia del Territorio Histórico de Bizkaia.

De esta manera, cualquier persona que tenga constancia de la existencia de alguno de ellos (actual o pretérita), puede colaborar mediante el envío de un correo electrónico a la siguiente dirección de email: [gernikako.arbola.munduan@bizkaia.eus](mailto:gernikako.arbola.munduan@bizkaia.eus)

La labor de la investigación desarrollada hasta la fecha se ha centrado en la revisión de registros y expedientes de distintos fondos depositados en el Archivo Histórico Foral de Bizkaia, así como en la consulta de los registros de salida de retoños de Juntas de Generales de Bizkaia. Se ha organizado toda esta información junto con la enviada desde ayuntamientos y colectividades vascas. Además, se ha contado con la inestimable colaboración de Joseba Iribar, investigador que ha dedicado más de 40 años a la recopilación de diversos datos sobre la Casa de Juntas de Gernika.

Partiendo de esta base, se ha procedido a la identificación y localización geográfica de los retoños. En los casos donde ha sido posible, se ha constatado su situación actual a través de registros gráficos.

El estudio cuenta actualmente con información relativa a unos 400 retoños, de los cuales se ha logrado constatar en 2018 la supervivencia de 151 ejemplares. Por otra parte, de 36 retoños existen indicios sólidos que hacen pensar que perviven en la actualidad, aunque

no se pueda afirmarlo aún con rotundidad. Finalmente, se ha podido constatar la desaparición o deceso de aproximadamente 60 árboles.

Las razones por las que algunos retoños no han logrado sobrevivir responden principalmente a causas naturales – al tratarse de seres vivos- o ambientales. No obstante, a lo largo de la historia, algunos ejemplares han terminado desapareciendo debido a agresiones de corte político. Este sería el caso de los retoños plantados en Estella o el que se plantó junto a la Cruz de Piedra en Luiaondo.

#### “EMAN TA ZABAL ZAZU MUNDUAN FRUTUA”

Desde que el ilustre bardo Jose María Iparraguirre comenzara a cantar aquello de “Eman ta zabal zazu munduan frutua” en el más que popular himno *Gernikako Arbola*, las Juntas Generales de Bizkaia han procurado que los lugares más recónditos del mundo contaran con un descendiente del histórico Árbol de Gernika. La realización de este estudio coincide precisamente con la inminente celebración del 200 aniversario del nacimiento en Urretxu del bardo Iparraguirre.

En relación a su distribución geográfica, más de la mitad de los retoños que han podido ser localizados están ubicados en el Territorio Histórico de Bizkaia (87). No obstante, el estudio ha logrado constatar la existencia de retoños en los cuatro Territorios de Hegoalde y en Iparralde.

De igual manera, dentro del Estado se ha comprobado que descendientes del viejo roble han logrado echar raíces y sobrevivir en distintas comunidades autónomas como Galicia y Cataluña.

A un nivel más global, aunque a fecha de hoy no se ha podido confirmar que pervivan retoños en los cinco continentes, sí llegaron a enviarse ejemplares en el pasado. Son los casos del roble que fue plantado en Judea durante la peregrinación vasca a Jerusalén de 1902 y los que pudieron ser plantados en Nairobi (Kenia) o en el Jardín Botánico de Sydney de 1996. Se ha contactado con diversas instituciones en todos estos lugares sin haber podido hasta el momento constatar o desmentir que perduren en la actualidad.

En Europa se conservan retoños del árbol de Gernika en lugares como el condado de Hampshire (Inglaterra), donde ocupa un lugar de preeminencia a la entrada de un parque botánico, la ciudad alemana de Pforzheim, hermanaada con Gernika, o los antiguos campos de concentración de Gurs en Francia o Auschwitz en Polonia.

En América, países como Argentina, Chile, Uruguay o EEUU, con fuerte presencia de colectividades vascas, cuidan con pasión sus retoños. Suelen estar ubicados en las plazas principales de las ciudades o en las casas vascas y bajo su sombra se realizan celebraciones, conmemoraciones y homenajes.

#### EL RETOÑO MÁS ANTIGUO

Tras analizar los numerosos datos y fechas extraídas de este estudio, se ha comprobado que el retoño más antiguo que se ha localizado por el momento se encuentra, precisamente, en Gernika. El esqueje fue plantado en 1859 a 200 metros de la Casa de Juntas, en el jardín de la casa conocida como Nabor.

Fuera de nuestro Territorio, aunque algunas referencias con tintes legendarios nos hablan de retoños en 1602 en Argentina o en 1724 en Montevideo, el retoño más antiguo que perdura data de 1886 y se encuentra en Rosario de Santa Fé en Argentina.

Encontramos otros descendientes centenarios del roble de Gernika en Arenys de Munt en Cataluña (1882), el Centro Vasco Laurak Bat de Buenos Aires (1906), la ermita de San Pedro de Zarikete en Zalla (1912) o en la plaza de Oñati (1917).

#### **EQUIPO RESPONSABLE DEL ESTUDIO**

Iker Lope de Bergara es biólogo y técnico especializado en el desarrollo de sistemas de información geográfica en el ámbito del patrimonio natural y cultural. Está realizando este estudio junto con Rebeca López, historiadora y documentalista. Ambos son técnicos de la consultoría de Cultura y Naturaleza Orbela, situada en Bilbao.